

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Alkatetzaren jardunbidea

Udalbatzak, 2019ko uztailaren 15ean egindako batzarrean, besteak beste, honako erabakia hau hartu zuen:

Lehenengoa. Alkate-Presidenteak bere funtzioak dedikazio partzialeko erregimenean burutu ditzan zehaztea. Arrazoiak honakoak dira:

- Kultur zerbitzuen garapena (urtekoa / udakoa).
- Kirol zerbitzuen garapena (urtekoa / udakoa).
- Hezkuntza proiektu berriaren garapena (eskola txikia).
- Lehenengo eta hirugarren sektoreen garapena (Patioko Benta / ekonomatua).
- Hirigintza proiektu berrien garapena (Larrea – 4. Aldaketa; Larrea – 5 EU; Heredia; Ozaeta,...).

Bigarrena. Bere kargua dedikazio partzialarekin burutzen duen Udalbatzako kidearen alde ezartzea ondoren adierazitako ordainsariak. Hamalau pagatan banatuko dira: hamabi urteko hilabete bakoitzari dagokionez, eta beste biak ekaineko eta abenduko ordainketei dagokienez. Gainera, gizarte segurantzaren erregimen orokorrean alta eman behar zaio, eta Korporazio honek hartu behar ditu bere gain horri dagozkion enpresa kuotak.

- Alkate-Presidentearen karguak 31.839,20 euroko urteko ordainketa gordina jasoko du (zenbateko horren barruan dago 2018ko abenduaren 31n indarrean zegoen kopuruarekiko ehuneko 2,25eko igoera, eta ez Ministroen Kontseiluak onartutako ehuneko 0,25ekoa). Dedikazio partziala ehuneko 75ekoa izango da.

Ozaetan, 2019ko uztailaren 15ean

Alkatea

IGOR MEDINA ISASA